

## **Ikurrinaren historia laburra**

*Egunkaria*, 1994-04-03: 4.

Lehenengo 'Euskaldun Batzokia' Sabino Arana-Goirik sortu zuen Bilbon, 1894-go uztailak 14, Korreo kaleko 22.ean, eta bertoko balkoian jaso zuten arratsaldeko 6etan Bizkaiko ikurrina estreinaldian.

Ekintza honek zirrara handia sortu zuen hirian.

Urtebete gero aukeratzen da lehenengo Bizkai Buru Batzarra, Sabin buru dela, eta bere anai Luis, Fabian de Ispizua, Elias de Lekue, Juan de Aranburuzabala, Ciriaco de Llodio eta Salvador de Etxeita batzarkideak zituela. Eusko Alderdi Jeltzalea disenatua bazegoen ere: Bizkaia ezik, beste sei lurraldeak: Araba, Benabarra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa asmo honetara biltzea falta zen, denak konfederazio bat osatzeko asmotan, bertan iraun edo irteteko eskubide eta betebeharrak berekin denak.

Espresuki aipatzen dut hau, Ikurrinarekin ihardupide berdina gertatzen delako: Bizkaitik Euskadira.

'Euskaldun Batzokian' jaso zen ikurrina Bizkairako asmatua izan zen, eta gero gaur Euskadi osorako onartua. Hara nola: Sabinekin berak esaten du, nazio batzuek bandera dutela, eta beste batzuek, harmarria; honela deskribatzen du Bizkaiako banderaren bilakaera: "Euna da gorri bixija, eta euneko ganian ezartzen dira gurutz bi: bata da Deun-Ander'ena eta berde edo orleya da; bigarrena, besteko ganian ezarri biardana, da Kristorena ta bere kolore edo margua da zurija. Gurutze bijoek zabaltasuna bat da, eta bijoek besuak eunaren egaletaraño luzatuten dira" ('Lehenengo Egutegi bizkaitarra 1898', lan osatuak, 1543 or.). Bilakaera hau puntuz puntu erdarazko artikulua batean deskribatzen du. ('La bandera bizkaina', *Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*, 11'g. zenbakija, 1897, Garrilla 11. Bilbao Año 1. L. o., 1323 or.).

Sabinek Bizkairako eratu zuen ikurrin hau gero Euskal Herri osora nola zabaldu zen bi hitzetan esango dut.

Gerra 1936an sortu zen arte 'Eusko ikurrina' edo 'Ikurrina', erderaz 'Bandera vasca', egin zen ezaguna zazpi lurraldetan. Halaxe ezagutu genuen aitonek, gurasoek eta neronek batzokietan, hitzaldietan, Errepublikara garaiko Aberri Egunean eta lehen Estatutoko kanpainetan. Gernikan 1936. go urriaren 7an Eusko Jaurlaritzak sortu zenean, honek urriko oroagindu edo dekretu bidez 2. artikuluan ofizialtzen da Ikurrina. Gerran berarekin, igo ziren bataloi euskaldunak, abertzaleak batez ere, mendira, berarekin desfilatu zuten hirietan, eta egin zen ezaguna munduan zehar; batez ere Gernikako krimenaren ondoren.

Gero, gerrondoko exilio luzean, klandestinitateko lanetan, erresistentzia armatuan. Ikurrina izan da eten gabe erabili dena, gaur arte.

Nahiz eta Ikurrinarekin batera ikurrinak adierazten duen Aberriaren eguna elkarrekin ospatzeko gauza izan ez oraindik.